



Euskal etxeak erreleborik gabeko etorkizuna?

ERREPORTAJEA

■ KRISIA ETA ERRONKA BERRIAK EUSKAL ETXEETAN

IRITZIAK

- Argitxu Camus
- Joseba Etxarri
- Josu Legarreta
- Mariana Fernandez
- Miel A. Elustondo
- Gloria Totoricaguena

Euskal etxeak: Krisia eta erronka berriak

■ Urko Apaolaza

Euskal etheen egungo egoera ez da oso pozgarria, bai zaharkitua. Gazteak erakartzeko arazo ugari dago eta azaleko folklorean erortzeko arrisku itzela. Krisia begi-bistakoa da, euskal nortasunaren mugak gero eta lausoagoak baitira globalizazioaren inperioan. Jakina, moduak eta moduak daude euskaldun sentitzeko, eta atzerrian identitateak memorian barrena bidaiatzen du libre. Baina Euskal Herriko erakundeek elikatzen duten diasporak aldaketak behar ditu, freskotasuna eta egitura arinak. Euskal etxeek antzinako inertziak baztertu eta belaunaldi berrien beharrak asetu behar dituzte, iraungo badute.

NABUCODONOSOR agintari babiloniarrek K.a 586 urtean Juda erreinua konstitatu zuenean, Jerusalemgo tenplua txikitu eta judutarrak indarrez kanporatu zituen herrialde hartatik. Bibliak dio jainkoaren zigorra izan zela; judutarrak Mesias noiz munduratu tuko zain geratu ziren “lurralde prometatura” berriz itzultzeko –XIX. mendean sionismoa azaldu zen arte–. Judako seme-alabak munduan zehar barreiatu ziren eta historiako lehenengo diaspora izan omen zen hura, hitzaren esanahi grekoari kasu eginenez, lehenengo “dispertsioa” (διασπορά).

Horregatik, diasporaz hitz egitean, askotan judutarren diasporaz hitz egiten da, jatorriko esanahia eraldatu egiten zaio eta gertakizun konkretu batekin lotzen da, hasierako zentzua galduz. Ez da harritzekoa Euskal Herritik kanpora joandako euskaldunen artean “diaspora” hitzak erreparatu handia sortu izana eta oraindik ere “kolektibitate” edo “komunitatea” bezalako kontzeptuak

onarpen handiago izatea, aurrekoak konnotazio ezkorrak –zigorra, derrigorrezko erbesteratzea...– dakartzalako berarekin. Beste batzuek aldiz “mito” hutsa deritzote euskal diaspora berari, nazionalismoaren asmakizun bat.

Baina Gloria Toticaguena adituak ondo argudiatu bezala, ez da beldurrik izan behar munduko euskal kolektibitateei diaspora deitzearekin. Robin Cohen iraskasleak ezarritako printzipioen arabera, euskaldunena diaspora bat da: dispertsio traumatikoa, memoria kolektiboa, mitoa, elkartasuna, itzulera... Horiek guztiak identifikatu ditu Toticaguenak emigratu zuten euskaldunengan. Jon Andoni Irazustaren *Bizia garratza da* nobela errealistan (Ekin, 1950. Armiarma.com-ek Klasikoen Gordailuan eskegia) bi anaiak gerraren ondorioz sorterria derrigorrean utzi behar dute, *Cuba* itsasontzian berriketan hasten dira ilunabarra iristean eta honela esaten dio batak besteari:



Lehenengo belaunaldiko emigranteak badoaz eta bigarren edo hirugarrenekoak ari dira kolektibitatearen sarea osatzen. Irudian, Tandil-eko (Argentina) Gure Etxea.

—Utzi ditugun toki, mirabe ta gauzak aztutzerako aldi bat joango da. Badakigu goizeroko ta gaberoko pentsamentuk nolakotsuk izango diran. Lanak eta jendearekin itz egin bearrak atzenduko al dizkigu zer bait.

Irazustaren pertsonaiek benetako sentimendua adierazten dute. Pedro Mari Otañok ere bere txikitako Errekaldeko atariko intxaurpea zuen gogoan Pampako bakardadean idatzi zituen bertso ezagun haietan. Herrimina baita diasporaren barruko arra. Herriminari eta etorkizun ezezagunari aurre egiteko euskal nortasun etnikoari eutsi izan diote atzerriera joandako euskaldunek. Jakina, Aranismo sutsuaren garaian nortasun horren “primordialismoa” aldarrikatu bazen ere —eta primordialismo hitza dagoen lekuan jarri “mugiezintasuna”, nahi bada—, garbi dago nortasun-etniko hori aldatu daitekeela atzerriratutakoek asimilazio prozesua jasaten duten heinean. Intxaur arbola gogoan duen arren, Otaño bertsolariari Argentinako txabola

ondoko onbuaren aldamenetik joatean “bihotza erdibitzen” zaion bezala.

Bada, hala ere, gaur egun gertatzen den beste egoera bat. Ezin dugu ahaztu oraingo diasporaren bizimoldea ezberdina dela. Apenas dago emigrazio-rik, lehenengo belaunaldiko emigranteak badoaz eta bigarren edo hirugarren belaunaldikoak ari dira kolektibitatearen sarea osatzen. Nortasuna eta etnizitatea erabili egiten da modu sinbolikoan, horrela, instrumentu bilakatzen da. “Instrumentalismoa” deitu diote horri adituek, Benan Oregi Eusko Jaurlaritzako diaspora gaietako teknikoak, euskal kulturaren transmisioaz egiten ari den ikerlanean honela deskribatu du:

“Diasporan gerta daitezkeen asimilazio erabatekoaren eta nortasun etnikoa mantentzearen artean, badira egoera batzuk instrumentalizazioa ere gertatzen dela ondorioztatzera garamatzatenak. Esan nahi dugu norbanakoaren eta taldeen ahaleginak ikusten ditugula eus-

kal diasporan ere sinbolo etnikoen inguruan mobilizatuz. Baliabide material, politiko eta sozialetara (eta ekonomikoetara) iristea da azken helburua”.

Interes jakin batzuen –izan ekonomikoak, politikoak...– mesederako aldarrikatutako nortasuna, dena den, ez omen da ezaugarri nagusia euskaldunen kasuan. Baina Oregik datu interesgarria eman du: azken mende erdian emigraziorik jaso ez den herrialdeetan, 5-7 euskal etxe ireki dira bataz beste urteko (ikus 2. infograma). Zein da horren arrazoia? Zalan-tzarik gabe, horixe da gaur egungo euskal diasporaren kontraesan handietako bat. Baliteke paradoxa horrek instrumentalizazioa eta interesa ezkutatzeari bere baitan, baina Euskal Etxeen egitura teoria hori baino konplexuagoa da, bere erroak ehundaka urtetako kolonizazio eta emigrazioan kiribildurik baitaude.

“California! Hau da herria!”

Duela gutxi William Douglasek antropologoak aldizkari batean esan zuen *Amerikanuak* (Reno, 1975) idatzi zuenetik liburu horrek markatu duela bere irudi akademikoa. Ez da gutxiagorako, Jon Bilbaorekin idatzitako ikerlana azken hogeitako joera historiografikoaren aitzindaria izan baitzen. Oscar Alvarez Historian doktorea da EHU eta euskal emigrazioaren bilakaeran aditua; bere ustez Douglasek eta Bilbaoren obrak emigrazioa diziplina ekonomiko huts baino historia sozialaren parte ere bazela erakutsi zuen, eta ordutik euskal-amerikarren historia, diasporarena, ikuspegi arras ezberdinez landu izan da. Dena den, egia da *Amerikanuak*-etik hona aurrerapen itzela egon dela emigrazioa ulertzeko ikerketetan eta bertako zenbait ideia guztiz gainditurik daudela, esaterako, euskal emigrazioaren kausak arrazoitzean.

Zergatik emigratu zuten euskaldunek? Teoria eta tesi asko planteatu izan da emigrazioa sortu zuten arrazoiak esplikatzen: Uzta txarrak, gerrak, zerbitzu militarari ihes egin nahia, euskaldunen berezko abentura zaletasuna, osabaren deia... Alvarezek “euskal emigrazioetat” pluralean hitz egiten du, fenomeno zabal bezain anitza dela adierazteko. Hasiera hasieratik Kontinente “berriak” lilura eta eztabaida sortu zuen. Tomás Mororen mundu utopikoa ikusten zuten batzuek lurralde horretan, beste batzuen ustez, ordea, hara joaten ziren europarrak kodiziak jota gaiztotzen ziren, horra zer esan zuen Pedro Martir de Angleria kronistak 1530ean: *...arrastrados de la ciega codicia del oro, los*

que de aquí se van mansos como corderos, llegados allá se convierten en rapaces lobos (urreearen zaletasunitsuak eramanda, hemendik arkumeak bezain otzan joaten direnak, otso harrapakari bihurtzen dira han).

XIX. mendean bapozeko ontziak agertu ziren, Ameriketarako bidaiak merketu, eta nekazarien emigrazio masiboak hasi. Euskal Herriko sektore zabala joera horren kontra jarri zen, batez ere Eliza. Adierazgarria da 1853ko Urruñako Euskal Jaietan gertatutakoa. Abbadiek sustaturiko bertso sariketan gai bakarra zegoen: Ameriketarako emigrazioa. Etxahun bertsolariak salatu zuenez sariketaren kontrola apai-zek bereganatu zuten, emigrazioaren kontrako bertsoak gailen zitezen: “Aphezen kontseiluak bethi kontrario” esan zuen barkoxtarrak arranguraz. Eta zer interes zuen Elizak emigrazioaren kontra jarduteko? Antza, Ameriketara joaten zirenak fedea galtzen omen zuten. R. M. Azkuek garbiro agertu zuen ideia hori *Ardi galdua* izeneko liburuan (1918); eleberrian, Kaliforniara joan den emigrante batek gutunak trukatzeko dituen bere herriko bikarioarekin:

– California! Hau da erria! Ez neguan otzegi, ez beroegi udan!– idazten dio Medel izeneko nekazariak Sakramentoko Leaburu Hotel-etik.

URAZANDI. MAR DEL PLATA, ADRIANA ALVAREZ



Mar del Platako esne saltzaile euskalduna. Argentina eta Uruguain lan neketsuak egin behar izan zituzten hara joandako emigranteek.

– Izan zaitez urrutietan emen izan bezalako kristau ona – erantzuten dio arduratsu bikarioak.

Sakonean, bistakoa da exodo horrek Elizaren botere demografikoa murrizten zuela. Dena den, kontra-propaganda-liburuen –aita Pierre Lhande eta José Cola y Goityrenak bereziki– eta prentsako iritzi kritikoaren gainetik milaka izan ziren atzerrira joandako euskaldunak. Ezin da datu zehatzik isuri hemen, ofizialki joandakoei “paperik gabe” eta modu ilegalean emigratzen zutenak gehitu behar baitzaizkie. Dena den, 200.000 lagun izan zitezkeela diote iturri klasikoek. Egin kontu, Buenos Airesko eliza bakarreko artxi-boan 1828-1860 urte artean 700 euskaldunen izen abizenak bildu ditu Nora Siegrist de Gentile historialariak, izeberg baten punta besterik ez.

Euskal etxea: ostatu hutsetik eragile politikora

Amerikako euskaldunek talde kontzientzia izan zuten lehenengo unetik. Hizkuntza propioa? Estatus berezia? Zaila da jakitea zergatik sortu zen izaera kolektibo hori, baina datu objektiboek diote euskaldunak bat eginik ibili zirela enpresa ekonomiko eta ekintza sozialetan. Horrela, elkarteetan biltzeko joera goiztiarra Peru, Txilen eta Mexikon Aro Modernoan sortu

ziren kofradietan ikus daiteke. Dena den, euskal etxeak, gaur egungo esanahiari kasu egiten badiogu, ez ziren XIX. mendera arte sortu. Euskaldunek gobernatzen zituzten ostatuak izan ziren horien hazia. 1876an Laurak Bat izeneko elkarteak sortu zen Montevideon, eta ondoren Habanan eta Buenos Airesen. Elkartzeko lekuak ziren, herrikideekin harremanetan jarri eta gustuko ohiturak praktikatzeko.

Hala ere, ez da ahaztu behar eragile politikoak ere bazirela elkarte haiek. Laurak Bat-en sorkuntzan, esaterako, nabarmen eragin zuen urte horretanxe euskal foruak behin betikoz abolitu izanak. Bestalde, XX. mende hasieran abertzaletasuna lurreratu zen Amerikan, eta laster zabaldu diasporan, ez ordea zaratarik sortu gabe. José María Tápiiz ikerlariak ideologia sabindarrak euskal diasporan izan zuten eragina aztertu du; bere ustez Hegoaldetik joandako emigranteek errazago onartu zuten doktrina berria eta pertsonaia politiko batzuen militantzia funtsezkoa izan zen horretan –Sebastian Amorrortu editorea, horien artean–. 1910eko hamarkadan norgehiagoka latza lehertu zen euskal etxeen barnean, Aranaren abertzaletasun berria *versus* karlismo edo fuerismo zaharra, nork zein erakunde kontrolatuko. Horrela, 1912an Euskal Erria izeneko zentro abertzalea sortu zen Montevideon eta Zazpirak Bat izeneko Rosarion (Argentina), biak eszizio baten ondorio izan ziren. Buenos Airesko Laurak Bat izan zen norgehiagokaren eszenatoki nagusia, eta Felix Ortiz San Pelayo musikari ezaguna protagonista printzipala. Azpeitiar atzerriratuak, karlista eta euskaltzale amorratuak zen, agian horregatik kapitalizatu zituen abertzaleen kontrako kritikak, harik eta euskal etxe dekanoaren zuzendaritza eskuratu zuen arte.

Hurrengo urteetan nazionalismoa erabat gailendu zen euskal etxe gehienetan eta 1936ko Gerrako erbesteratuen iritsierarekin hegemonikoa bihurtu zen –150.000 pertsona erbesteratu zirela kalkulatu da, horietako asko Venezuelara, ordura arte euskaldunen kolonia txiki bat besterik ez zuen herrialdea–. Atzerriratuek dinamika berria ernaldu zuten atzerriko erakundeen baitan, euskal etxe gehiago sortzeaz gain, gerraren traumak eragindako euskal kulturaren ekarpena egin baitzuten, artea eta literaturaren bidez batez ere, Jokin Zaitegiren *Euzko Gogoa* aldizkaria tarteko. Duela gutxi erbes-

**Azken mende erdian
Emigrazioa jaso ez den
herrialdeetan 5-7 euskal etxe
ireki dira batz besterik.
Zein da horren arrazoia?
Zalantzarik gabe, horixe da
gaur egungo euskal
diasporaren kontraesan
handietako bat.**

teari buruzko kongresua egin zuen Hamaika Bide elkarteak (www.hamaikabide.org/congresos.php) eta bertan “barne erbestea”, deserria edo “transerrria” bezalako kontzeptuen inguruan eztabaidatu zuten. Transerrria (*transtierro*, gaztelaniaz) Jose Gaos-ek asmatutako neologismoa da, Mexikora joandako espainiar exiliatuei aplikatua; baina euskaldunen kasura ere estrapolatu daiteke. Orduan, 36ko erbesteratuek deserritik transerrria –integratoria, alegia– igaro behar izan bazuten, zertan lagundu zien kultur sorkuntzak trantsizio horretan? Nestor Basterretxea eskultoreak bere memorien atarikoan biluzten du sentimendu hori:

“Hamazazpi urte erbestean eta bidaiari gogor bat izan ziren nire orduko egunak. Eta oraindik harritzen nau nola eta zenbat bizitza ustekabeko halabeharrez gobernatuak dagoen, eta norberak jasaten duen babesgabetasuna haren gogorkeri eta zartadak jotzen dionean. Baina temati, zorientasunak bere lekua aurkitu du nire bizitzako ordu askotan: existentzia suharrekin, sormen artistikoaren abenturarekin, familia adiskidantza jatorrekin, eta behar besteko umorearekin”.

Erbesteratu askok euskal etxeetan bilatu zuten babesgabetasun horren aurkako antidotoa, Mexikotik Mar del Platarraino; horietan asetu zuten herrimina eta ernamuindu zuten gaur egungo diaspora. Izan ere, orduz geroztik ez da tsunami gehiago egon, basogizon, artzain edo pilotariz osatutako olatu txikiak baizik. Amerikako Estatu Batuetako mendebalde busti zuten batez ere eta hasieran ikusezinak ziren, “bigarren mailakoak” Robert Laxaltek esango lukeen bezala. Gero, arrotasunez erakutsi zituzten euren sustraiak, 1959an Sparks-eko jaialdian, eta ordutik jaiotako *basque club*-etan.

Nortasunaren transmisioa

Gaur egun hamarnaka euskal etxe daude mundu osoan barreiatuak, gehienak Argentinan, edo hobe esanda, Argentinako Panpa Hezean. Herrialde hartako euskal etxe ugari FEVA (Federación de Entidades Vasco Argentinas) daude antolatuta, 1955ean sortua Mar del Platako Euskal Astearen ondoren. Lurralde zabala da oso Argentinakoa, euskal etxe batetik bestera milaka kilometro egon daitezke (3.000km Jujuytik Comodoro-Rivadavia-ra), eta Federazioaren bidez hartu emanak izan ditzakete. Horretaz gain, Amerikako Estatu Batue-

Erbesteratu askok euskal etxeetan bilatu zuten babesgabetasunaren aurkako antidotoa; horietan asetu zuten herrimina eta ernamuindu zuten gaur egungo diaspora. Orduz geroztik ez da tsunami gehiago izan, basogizon, artzain edo pilotariz osatutako olatu txikiak baizik.

tan ere bada euskal elkarte edo klub ugari –NABO, North American Basque Organization elkarte baturik–, eta Venezuelan, Espainian, Australian, Uruguain, Txilen... (ikusi mapa ondorengo orrian). Euskal etxe bakoitzaren bilakaera eta bizimodua ezberdina da, testuingurua ezberdina delako; baina orohar, duela 50 urteko identitate zeinu antzekoekin hornitzen dira oraindik ere, nahikoa da haiek bisitatu edo batzuen web gunera jotzea nagusitzen diren jardueren berri jakiteko: dantzak, pilota, euskal jaialdiak, karta jokoak, gastronomia, ikastaroak... Arazoa al da hori?

Euskal Herriko biztanleek ezagutu beharko lukete diasporaren benetako egoera zein den. Horretarako aurrerapausoak egin dira jadanik, eta adibidez, diasporak badu lekurik euskal curriculumean; gaur egun lehen hezkuntza edo DBHko ikasleek euskal diasporaren berri dute eskoletan. Beste aldean, sarritan egozten zaio diasporari Euskal Herriaren ikuspegi mitikoa duela, baina komunikazioaren mende gauden honetan, euskal-amerikarrek inoiz baino hobeto ezagutzen dute Euskal Herriko errealitatea. Hala ere, noizbait aitonen sorterrira bidaiatzen dutenean, arbasoen sustraiak eta tradizioa ezagutzeko gogo biziz etortzen dira, eta ez hainbeste saldu nahi izaten zaien kultura postmodernoa. Adibidez, duela urte batzuk Eusko Jaurlaritzako Gaztemundu programarekin argentinarrak gazte



Prentsa izan da euskal diasporaren zutabeetako bat. Goian, ezker-eskuin:Laurak Bat, Denak Bat eta Aitor aldizkariak.

batzuk Euskal Herrira etorri ziren, bertako errealitatea gertutik ezagutzera. Gazte horiek Donostiako leku ugari bisitatu zituzten: Parke teknologikoa, Euskal Telebista, Unibertsitatea... Baina hara non eta denbora librean izan orduko Alde Zaharreko *souvenir* dendetara joan ziren ikurrinadun txapelak erostera, denon harridurarako. Jokabide hori migrazioa etetearen ondorio antropologiko bat besterik ez da Douglassen arabera. Bestela pentsatzen dute askok, euskal etxeetan nortasun eredu atzeratu bakarretik edaten dela, alegia. 2007an egin zen Euskal Kolektibitateen IV. Kongresuan honela azaldu zuen Gloria Toticaguenak: “Diasporak ezin du nortasun homogeneo bakarra asmatu, are gutxiago sorterria bera aniztasunean aberatsa denean”.

Ideologia politikoen gainetik eta ikuspuntu folkloriko hutsetik harantzago lan egin behar dute Euskal Etxeek. Gaur egun 20.000 lagunek dute elkarteetan izena emanda, baina seguruenak kopuru hori ez da euskal jatorriko herritarren %10era ere iritsiko. Bazkideen adinaren batz bestekoa 45 urtetik gorakoa da (2006ko galdeketatik ateratako datua) eta euskal etxe gehienetan zailtasunak dituzte gazteak erakartzeko. Esan nahi da belaunaldi aldaketarik ez dagoela, eta hori bai da arazoa. AEBetako Mendebaldean pilota jokoa hiltzen ari dela esan dute gordin bertako arduradunek eta beste bide batzuk irekitzeko asmoa plazaratu dute.

Kuban eta Mexikon, adibidez, pilota ez dago euskal etxeari zuzenean loturik, herrialde osoan zabaldutako kirola da. Azken finean euskal etxeak “irekitzea” da erronka, gazteak erakarriko badituzte: “Euskal etxeetan belaunaldi berriek hartu behar dute aitzindaritzatza: modernizatu eta egoera berrira egokitu beharrean daude, iraungo badute. Gazteei heldulekua eskaini behar zaie, euren neurrikoa, euskal komunitateko kide senti daitezen”. Benan Oregiren hitzek zentzuzkoak eta bideragarriak dirudite, baina ez da egiteko erraza. Leku batzuetan hasiak dira gazteentzako proiektuak sortzen, aitzitik, beste askotan dantzari taldeak dira oraindik ere gazteentzako euskarri bakarretakoak.

Dirulaguntzak berdin autonomia eza?

Beste galdera bat egin liteke hemen: euskal etxeetako zuzendaritzek zer ardura dute transmisio eta irekitze prozesuan? Hara: Hego Amerikako euskal etxe bateko zuzendaritzaren organigrama Ogasun Ministeritza batekoa bezain luzea izan daiteke –Presidente, ohorezko presidentea, idazkaria, idazkariordea, diruzaina, diruzainordea, lau bokal, beste lau bokal ordeko, kontu hartzailea...–, kasu askotan burokrasia geldoa dago, protokoloa eta hierarkia zorrotza. Zuzendaritza kide askok errezelo handia dute zentroak egitura arinagoetara irekitzeko, euren etxea bezala sentitzen



2007ko uztailean antolatutako Euskal Gizataldeen IV. Kongresuko familia-argazkia.

duen erakundean arrotzak baitituzte iniziatiba berritzaileak. Portaera hori areagotu egiten da dirulaguntzen babesean eta ekitaldi ofizialen oparotasunean bizi diren kideengan.

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak euskal etxeen ugaltzearen arrazoietako bat izan daiteke. Gaur egun Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritzak hainbat proiektu ditu abian eta horien artean egoera larrian dauden euskal-amerikarrei emandako dirulaguntzak daude. Laguntza horiek helburu jakina dute, krisian dauden Hego Amerikako herrialdeetako euskaldunen egoera hobetzea. Iaz 200.000 euro baino gehiago banatu zituzten situazio horretan zeuden herritarren artean. Bestalde, dirulaguntza orokorrak ere ematen dizkie Jaurlaritzak euskal etxeei, beren jarduera aurrera ateratzeko. “Zor historiko” baten ordainetan –herrialde haietan euskal emigranteek iraganean jasotako babesa eta aberastasuna–, diru kopuru handia banatzen da, eta horrek ardura sortu du. Nork dio laguntza horrek euskal etxeen dinamismoa sustatuko

duela? Ez ote ditu desaktibatuko? Ez ote dio euskal zentroari autonomia eta erabakiak hartzeko ahalmena kenduko? Rosarioko Zapirak Bat elkarreko arduradunek ezinbesteko jotzen dituzte subentzioak eta beren ustez euskal etxe askok ezingo lituzke ateak zabalik izan laguntza horiek gabe. Felipe Eiheragibel idazkariak autofinantziazioaren beharra aipatu du:

“Gure kasu partikularrean, 95 urteko ibilbidea izanik, eraikin propioa eta bizitza sozial kontsolidatua, autofinantziazioa izan behar genuke eguneroko helburu”.

Errealitatea burugogorra da baina, eta Hego Amerikako euskal etxe gehienak oso urrun daude autofinantziazio idealetik. Dependentsia horrek esparru politikoan ere eragina izan dezake, Euskal Herriko agintari politikoek parternalismo eta alderdikeriaz jokatzeko badute behintzat. Bide horretan, Eusko Jaurlaritzak diaspora “kaptatu eta instituzionalizatzeko” politika jarraitzen duela esan du Joseba Gabilondok artikuluan batean

Errealitatea burugorria da eta euskal etxe gehienak oso urrun daude autofinantziazio idealetik. Dependentsia horrek esparru politikoan ere eragina izan dezake, Euskal Herriko agintari politikoek paternalismo eta alderdikeriaz jokatzeko badute behintzat.

(www.joseba.net/kulturaniztasuna.html) eta hori euskal globalizazioaren adibide dela.

Dena den, bereizi behar dira Hegoaldeko eta Iparraldeko ereduak. Nevada, Idaho edo Kalifornian euskal etxeek askatasun handiagoz funtzionatu dute; seguruenik gizarte estatubatuarren bizi-moduaren lorratzari segika. Horrela, erreserba gehiagorekin onartzen dituzte euskal erakundeak baldintzak eta datuen pribatasuna mantentzen saiatzen dira. Bestalde, ukaezina da Mendebaldeko hainbat euskal etxe enpresa lehiakor bihurtu direla, jatetxe eta abarren bidez; baina tentuz ibili beharra dute, errelebo falta eta nortasuna azaleko multikulturaltasunean desagitea zer den ongi ezagutzen baitute AEBetan ere.

Euskara: erakarpen tresna paregabea

Azkeneko Euskal Gizataldeen Kongresuan 56 neurri zehatz jasotzen dituen dokumentua adostu zuten bertaratutako euskal etxeetako 150 ordezkariak. Oinarrian, batzarraren ondorio nagusia izan zen euskal etxeek ikasi behar dutela globali-

zazioak ekarri duen aldaketa kulturalera egokitzeko. Horretarako euskal komunitate osora ireki behar dira eta “gazte eta emakumeen inplikazioa” bilatu. Hain zuzen, euskara izango da zentroen irekieraren ardatzetako bat eta gazteak erakartzeko tresna bihurtu nahi dute.

Oraintsu arte hizkuntzaren transmisioa AEBetako zenbait familietara mugatu da. Hego Amerikan berriz, euskararik ez zaie erakutsi belaunaldi berriei; horrek badu esplikazio historiko-linguistikoa bat: Argentina edo Uruguaira joandako emigrante gehienak Hego Euskal Herrikoak ziren, hortaz, gaztelaniarekin moldatzen ziren nola edo hala. AEBetara egindakoak, ordea, ingelesa ikasi behar, eta horrek euskararen iraupena ekarri zuen. Hala ere, ezin ahaztu emigranteen seme-alabek amerikar gizartean jasan zuten bazterketa –euskal azentua lotsagarri zitzaizkien askori–; bilobak izan ziren euskararen balioa aldarrikatzen hasi zirenak eta *Third-generation phenomenon* (hirugarren belaunaldiaren fenomeno) deitu diote. Gaur egun, Mendebaldeko euskal *pikiniki*-etan euskara entzun daiteke, duela 20 urteko euskara, baina euskara.

Harrigarria da euskarak azken urteetan diasporan sortu duen interesa. Lehenago euskara ikasteko programak izan badira ere, azkenaldian ehundaka lagun ari dira mundu osoko euskal etxe eta unibertsitateetan klaseak jasotzen –2.000 pertsona HABEren *Euskara munduan* proiektuarekin–. Duela gutxi Argentina eta Uruguaitik etorritako 23 ikasle Lazkaoko (Gipuzkoa) Maizpide barnetegian hasi ziren zeregin horretan. Helburua da euskarako 3. maila gainditu eta jatorriko herrialdean irakasten jardutea. Miren Azkarate Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailburuaren esanetan “miragarria” da euskara zabaltzeko euskal etxeek duten “gogoa eta borondatea”.

Euskara, sinbolo huts izatetik nortasunaren igorle izatera pasa liteke, eta bide batez, euskal etxeetan haize freskoa zabaltzeko tresna paregabea bihurtu. Horretarako noski, barne kohesioa eta pentsaera irekia uztartzeko formula asmatu behar da, atzerriko euskal komunitate osoa gustura egongo den euskal etxea sortuz. Eta jakina, duela gutxi Henrike Knörr hizkuntzalariak prentsan adierazi bezala (*El Correo*, 2007-11-10) hori guztia “dogmatismo eta politikakeririk gabe, ikuspegi zabalez, giza errealitatea bezala, oso konplexua den kontu batekin”.

Amerikako Estatu Batuak


Kern County (Bakersfield)	Euskal Etxea of Miami (Miami)	Lagun Onak (Las Vegas)
Chino (Chino)	Basque Museum & Cultural Center (Boise)	Zazpiak Bat (Reno)
Oberena (Downley)	Cenarrusa center for Basque Studies (Boise)	Euzko Etxea (New York)
Los Banos (Los Banos)	Euzkaldunak (Boise)	Society of Basque Studies (New York)
Marin - Sonoma Basque Association (Novato)	Oinkari Basque Dancers (Boise)	Ontario Basque Club (Ontario)
Southern California Basque Club (Ontario)	Goonding Basque Association (Goonding)	Portland Basque Club (West Linn)
Anaitasuna (San Francisco)	Txoko Ona (Homedale)	Basque club of Utah (Salt Lake City)
Basque Club of California (San Francisco)	Euskal Lagunak (Mountain Home)	Euskal Etxea (Virginia)
Basque Cultural Center (San Francisco)	Oberenak (Battle Mountain)	Euskal Etxea (Seattle)
Ventura County (Thousand Oaks)	Elko Euskaldunak (Elko)	Inland Northwest Euskal Etxea (Spokane)
Euskal Etxea (Colorado)	N.A.B.O (Elko)	Big horn Basque club (Buffalo)
	Mendiko Euskaldun Cluba (Gardneville)	Alkartasuna (Rock Springs)

Uruguai

Ibai Ondoko Etxea (Carmelo)
Euskal Etxea (Juan L. Lacaze)
Gure Etxea (Rosario)
Euskal Etxea (Durazno)
Gure Baserria (Minas)
Centro Euskaro (Montevideo)
Euskal Erria (Montevideo)
FLVJ (Montevideo)
Haize Hegoa (Montevideo)
Saltoko Euskaldunen Taldea (Salto)

Espainiako Estatuak

Artea (Balear Uharteak)
Euskal Etxea (Katalunia, Bartzelona)
Laminiturri (Logroño)
Euskal Etxea (Madril)
Euskal Herria (Madril)
Euskal Etxea (Malaga)
Euskal Etxea (Murtzia)
Txoko Lagun Artea (Katalunia, Salou)
Centro Vasco Navarra Laurak Bat (Valentzia)
Gure Txoko (Valladolid)




Argentina


Denak Bat (Arrecifes)	Toki Eder (José C. Paz)	Euskal-Etxea (San Nicolas de los Arroyos)
Euskal Odola (Ayacucho)	Arbola Bat (Junin)	Gure Txokoa (Suipacha)
Gure Txokoa (Azul)	Euzko Etxea (La Plata)	Gure Etxea (Tandil)
Union Vasca Sociedad de Socorros Mutuos (Bahia Blanca)	Lagunen Etxea (Laprida)	Euskal Sustraiak (Trenque Lauquen)
Balcarce'ko Euskaldunak (Balcarce)	Loreta'ko Euskaldunak (Las Flores)	Gure Etxea (Trenque Lauquen)
Danak Bat (Bolivar)	Denak Bat (Lomas de Zamora)	Hiruko Erreka (Tres Arroyos)
Danak Anaiaik (Bragado)	Ongi Etorri (Magdalena)	Accion Vasca de la Argentina (Buenos Aires)
Denak Bat (Caiuelas)	Anaitasuna (Maipu)	Lagun Onak abesbatza (Buenos Aires)
Euskalduna (Carlos Casares)	Denak Bat (Mar del Plata)	Emakume Abertzale Batza (Buenos Aires)
Guillermo Arregui (Chacabuco)	Gure Eusko Tokia (Moreno)	Laurak Bat (Buenos Aires)
Zingirako Euskaldunak (Chascomus)	Euzko Etxea (Necochea)	Vasco-Frances (Buenos Aires)
Beti Aurrera (Chivilcoy)	Gure Etxe Maitea (Olavarria)	Gure Echea (Buenos Aires)
Danak Elkarrekin (Coronel Dorrego)	Etxe Alai (Pehuajo)	Euskaltzaleak (Buenos Aires)
Eusko Biltzar (Coronel Pringles)	Lagun Onak (Pergamino)	Euskal Echea (Buenos Aires)
Eusko Aterpea (General Rodriguez)	Nuestro Rincón - Gure Txokoa (Rauch)	
Villegas'ko Euskaldunak (General Villegas)	Itxaropena (Saladillo)	
	Eusko-Deya (Sallioqueló)	

Eusko Kultur Etxea (Buenos Aires)	Euzko Alkartasuna (Macachin)
F.E.V.A (Buenos Aires)	Zelaiko Euskal Etxea (Santa Rosa)
Fundación Vasco Argentina Juan de Garay (Buenos Aires)	Atuel'ko Euskotarrak (General Alvear)
Lankidetzeta eta Garapenerako euskal-argentinarr Institutua (Buenos Aires)	Denak Bat (Mendoza)
Kotoiaren Lurra (Resistencia)	Zazpirak Bat (Cipoletti)
Euskal Echea (Comodoro Rivadavia)	Gure Echea (General Roca)
Noreste del Chubut (Chubut)	Ibaiko Euskaldunak (Rio Colorado)
Gure Txokoa (Córdoba)	Mendi'ko Euzko Etxea (San Carlos Bariloche)
Gure Ametza (Rio cuarto)	Beti Aurrera Aberri Etxea (Viedma)
Euzko-Etxea (Villa Maria)	Eusko-Etxea (San Juan)
Colectividad Vasca de Concordia (Concordia)	Euskal Etxea (Villa Mercedes)
Urrundik (Paraná)	Asociacion de Mujeres Vascas (Rosario)
Ibai Guren (Paraná)	Zazpirak Bat (Rosario)
Denak Bat (Jujuy)	Gure Etxea (Santa Fe)
Euzko Txokoa (General Acha)	


EUSKO JAURLARITZAK ONARTUTAKO EUSKAL ETXEEN KOPURUA (1999-2007)




BAZKIDEAK ADIN TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (1999-2007)



EUSKAL ETXEETAN GEHIEN ANTOLATZEN DIREN JARDUERAK



EKIPAMENDUA ETA INSTALAZIOAK EUSKAL ETXEETAN



Oharrak

Iturria: Euskal etxeen mapa eta datuak Eusko Jaurlaritzaren zerrenda ofizialek atera dira (Euskal Gizataldeen Harremanetarako Zuzendaritzako web gunean ikusgai: www.euskadi.net/euskaldunak). Euskal etxeetako jarduera, instalazio eta bazkideen inguruko informazioa 2006an Eusko Jaurlaritzak egindako datu-bilketa deialdi batetik atera dira, 2007ko Kongresuan argitara emanak.

Datuak: Eusko Jaurlaritzaren zerrenda ofizialean 162 euskal etxe ageri dira. Horretaz gain, zerrenda horietan onartu ez diren edo onartzea eskatu ez duten euskal etxeak daude. 2006an Eusko Jaurlaritzak egindako datu-bilketan 162 euskal etxeetatik 80k erantzun zuten; beraz, estatistika hauetan azaltzen den informazioa gutxi gorabeherakoa da.

Estatu Batuetako euskal elkarteak: Geroari behako bat



Argitxu Camus*

Estatu Batuetan, gaur egun, euskal kulturaren mantentzean lanean ari diren berrogei bat elkarte zenbatu ditzakegu. Gehienek (38) AEBetako euskal elkarten federazioa osatzen dute, the North American Basque Organizations, Inc. edo NABO.

XIX. mende erditsuan euskaldunak Estatu Batuetara masiboki immigratzen hasi baziren ere (hogeigarren mende erditsura arte iraungo zuen fenomeno), elkarte gehienak 1950. urtetik goiti sortu ziren. Hogeigarren mende hasieran sortutako elkarteak, Idaho estatuko Boise (*Socorros Mutuos* eta *American Basque Fraternity*) edo New Yorkekoa (*Centro Vasco Americano*, *Sociedad de Beneficio y Recreo*) adibidez, etorkin euskaldunen laguntzeko xedearekin antolatu ziren, aseguru sozial gisako bat kideei proposatuz. 1950. urtetik goiti agertutako euskal elkarten xedea ezberdina da: Euskaldunen arteko sozializazioa segurtatzea (jaiak) eta kulturaren hurrengo belaunaldiari pasa araztea da (dantzan, musean, eta pilotan irakatsiz).

Faktore ezberdinek euskal elkarten sorrera beranta ekarri dute. Hasteko, euskaldunen okupazioak (artzaingoak) euskaldunak bata bestetik urrun atxiki ditu luzaz. Horrez gain, euskaldunak ziren herri gehienetan euskal hotelak baziren, eta haietan jendea biltzen zen elkarren berri hartzeko edota jolasteko. Bigarren Gerla Mundiala eta gero hotel gehienak

desagertzen dira; euskaldunek bilera leku garrantzitsu bat galtzen dute. Azkenik, 1960. hamarkadan hasita, mugimendu berri bat sortzen da Estatu Batuetan, *roots phenomenon* edo "sustraiak fenomeno". Mugimendu horrekin, kultura minoritarioek hats berri bat eza-gutzen dute, harrotasuna irabaziz. Ondorioz, Estatu Batuetako leku ezberdinetan (Kalifornia, Nevada, Idaho, Oregon, Colorado, Washington, eta abar), euskaldunak biltzen dira eta elkarte formalak muntatzen dituzte, munduari haien kultura erakutsi nahian (bestak antolatuz), eta euskal tradizioak mantendu nahian.

Elkarte horiek dinamika ezberdinekoak dira. Bederatzik haien euskal etxea eraiki dute: New York, San Frantzisko, Boise, Elko, Ontario, Chino, Bakersfield, Gooding eta Homedale. Bostek pilota plaza bat dute: San Frantzisko, Chino, Bakersfield, Elko eta Boise. Kide kopurua ere desorekatua da elkarten artean: 800 eta 50 kide arteko elkarteak dira. Elkarte batzuek hilabetean bizpahiru aktibitate proposatzen dizkiete haien kideei, beste batzuek bakarria antolatzen dutelarik urtean (udako jaia).

Euskal elkarteak bidegurutze batean dira etorkinaren begira eta erronka zenbaiteri aurre egin

"Elkarte anitz krisi gogor batean dira.
Kide kopurua behera doa. Haien
aktibitateetan parte hartzea behera doa.
Haien geroa ez dut argi ikusten ez
badira errealitate berriei egokitzen"

behar diete. Euskal Herritik etorritako immigrazioa agortua den kontestu honetan, euskal elkarteak belaunaldi aldaketa prozesu batean dira. Aldaketa hori elkarte batzuek xarmanki pasa dute, beste batzuek zailtasun batzuk ezagutzen dituztelarik. Kasu batzuetan, belaunaldi gazteek ez dute interesik elkartearen segitzeko, beste kasu batzuetan aldiz belaunaldi zaharreko kideek ez diete errazki gazteei edo ideia berriei lekua uzten.

Elkarte guzien kide kopurua batuz, 6.000 lagun dira. 2000. urteko Estatu Batuetako erroldaren arabera, 60.000 pertsonen haien burua euskalduntzat definitzen dute. Elkarteen inguruan biltzen den jendea, hots, zenbaki horren %10a baizik ez da. Euskal elkarteetako zuzendariak errealitate hau kontutan hartu behar dute, eta jende horien erakartzeko manera pentsatu. Gaur egun, Estatu Batuetan, modan da Amerikanoa izateaz gain, norberak bere erroak beste nonbait dituela esatea. 60.000 pertsona horien artean, askok haien burua euskalduntzat deskribatu dute horrek haien bizian signifikazio handirik ukan gabe. Baina ber denboran, uste dut, zenbaki honen beste parte bat gogo onez euskal elkarteetara hurbilduko litzatekeela proposatutako aktibitateak berpentsatzen balituzte.

Euskal elkarte gehienek dantza talde bat badute eta hauxe da, anitzetan, gazteei proposaturiko jarduera bakarra. Baina euskaldunen haur guziak ez dira baitezpada dantzariak edo dantza maitaleak. Horrez gain, eskoletako kirol aktibitateek bai eta ere lagunek euskal aktibitateei konpetentzia handia egiten diote. Euskaltasuna ez da errazki etortzen den sentimendua Estatu Batuetan sortu den haur batentzat. Nortasun hori eraiki behar da. Ondorioz, azken urte horietan euskal elkarteak aktibitate berrien integratzen hasi dira, tradizionalak ez direnak, euskal gazteria euskal elkarteetara erakartzeko. Euskaldunen artean *football* amerikano partida baten ikustera joatea, golf zeingehiagoka batean parte hartzea, euskaldunentzako irekia den udaleku batean parte hartzea; hainbat ideia dira gazte horien lagun bilakatzeko eta komunitate baten eraikitzeke. Hori eginez, gazteak ohartzen dira euskal elkarte ez dela haien guraso edo aitaxi eta amatxirekin lotua den elkarte bat, bai-

zik eta gogo onez parte hartzen duten leku bat, haien lagunekin, izan dadin aktibitate tradizionalen inguruan edo aktibitate “modernoago” batzuen inguruan.

Teknologia berriek ate berriak irekitzen dituzte. Elkarte gehienek web gunea dute Interneten, eta horri esker euskaldunek horien berri jakitean, kide bilakatzeko erabakia har dezakete. Horrez gain, Euskal Herriko berriak errazki eskura daitezke orain, bai eta ere Euskal Herriko familiarekin komunikatu. Komunikabide horiek erabiltzen dituzten euskaldunak ohartzen dira haien arbasoek utzitako Euskal Herria eta gaur egungo Euskal Herria ezberdinak direla. Horietariko askok galdera asko dituzte, euskal elkarteek erantzuten ahal ez dituztenak. Garrantzitsua litzateke, belaunaldi gazteentzat, euskal gaietan heztea, uler dezaten haien arbasoak

nondik heldu ziren, eta Euskal Herria nola bilakatu den. Estatu Batuetan badira hainbat talde hezkuntza arloan espezializatuak direnak, eta haien ezagutza interesatuekin partekatzeke prest direnak, baina orain arte, oso guti izan dira haien laguntza edo kolaborazioa galdetu duten euskal elkarteak. Pertsonalki uste dut euskal elkarteek jarduera horiek gehiago integratu behar litzuketela, Estatu Batuetan sortutako bigarren, hirugarren eta laugarren belaunaldiko jendeen interesa sor dezakelako.

Elkarte anitz krisi gogor batean dira. Kide kopurua behera doa, haien aktibitateetan parte hartzea behera doa. Haien geroa ez dut hain argia ikusten ez badira errealitate berriei adaptatzen.

Nazioarteko euskal etxe bat sortzeko ideiarekin, New Yorkeko euskaldun batzuk bildu dira. Etxe horretan, euskal museo bat sortu nahi lukete, kontzertu gela batekin, bai eta ere jatetxe bat, liburutegi bat, turismo eta komertzio bulego bat. Proiektu honek euskal etxearen definizio berria garatzen du, euskal kulturaren mantentzeko leku bat, baina ez bakarrik: Euskal Herria eta euskal kultura mundura ekartzeko medio bat ere bai; Estatu Batuetako beste euskal elkarteek geroan kontsidera dezaketena.



Euskal Etxeak munduan

“Euskal Herritik bultzatzen diren harremanek eta laguntzek nahitaez helburu hau izan beharko lukete: Euskal Etxeak elkarte bezala indartzea. Hala egiten ez den guztia litzateke kaltegarri”



Josu Legarreta*

LUIS JAUREGALITZO/ARGAZKI PRESS

Hamaikatxo euskaldun izan da, gizaldietan zehar, bere jaioterritik alde egin duena. Arrazoiak ere askotan beste hamaikatxo izan dira. Hala eta guztiz ere, oraindik gaur fenomeno honen historia ez da sakon aztertu, ez zabaldu. Are gehiago: sarritan herri emigrante bat izan garena ere ez dugu uste izaten.

Bestalde, sarritan uste izan da euskaldunak bakarkako joerak ditugun pertsonak garena; hau da, indibidualistak garena. Historiak, ordea, erakusten du bestelakorik. Adibide gisa, munduan zehar bizi-rik dirauen Euskal Etxe sarea izan daiteke.

Gaur arte ezagutzen ditugun ikerlanen arabera, “Ilustre Hermandad de Nuestra señora de Aranzazu” izeneko elkarteak 1612an Liman sortu zen; eta sortzaile, 1635 apirilaren 12ko ordenantza berrietan azaltzen denez, hauexek izan ziren: *Naturales del Señorío de Bizkaia (49)* y *Provincia de Gipuzcoa y descendientes de ellos (35)*, *naturales de la provincia de Alava (7)*, *Reino de Navarra (9)* y *de las cuatro villas de la Montaña (5)*. Elkarteak sortzearen helburua hauxe izanik: sortzaileen eta euskaldunen arteko elkar laguntzak bultzatzea.

XVIII. mendean izen berarekin sortzen da beste bat Mexikon, eta eraiki ere egun Colegio de las Vizcaínas izeneko ikastetxea eraikitzen dute, andrazkoen heziketarako. Eta XIX.ean urtaldi beretsuan azaltzen dira Habanako Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia, Montevideoko Laurak Bat, Buenos Aireseko Laurak Bat eta Rio de Janeiroko Euskaldun Oro Bat.

Lehendabiziko bietan, Limakoan eta Mexikokoa, elkar laguntza zen helburu nagusi. Osterakoan

izenek erakusten digutenez, atzerriko euskaldunek bazuten bestelakorik ere: “Laurak bat” hitzak argi erakusten du bere ikuspegi politikoa eta, beraz, ezin ukatu Euskal Herriaren egoeraz ere arduratzen zirena. Honen erakusgarri izan daitezke, Alberto Irigoien historialariak argitaratu berri duenez, aldi hartan Umaran jaunak Euskal Herriaren independentzia eskatuz Montevideon idatzi zituen idazlanak. Baina, hasieran esan bezala, euskal emigratio eta erbesteratuen historia aztertu gabe dago, euskaldunok gizaldietan zehar izan duten eragin politiko eta ekonomikoa ikertzeke dagoen bezala.

Gaur egun, 200 bat Euskal Etxe dira; hauetatik 162k Eusko Jaurlaritzaren onarpenera eskatu eta lortu dute. Hogeita bat naziootan kokatuta daude: Andorra, Argentina, Australia, Brasil, Dominikar Errepublikak, Erresuma Batua, Espainia, El Salvador, Frantzia, Italia, Kanada, Kolonbia, Kuba, Mexiko, Paraguai, Peru, Puerto Rico, Txile, Uruguai, AEB eta Venezuela.

Esandakoez gain, egun ukazina litzateke Euskal Herriaren izen ona gehienbat gizaldietan zehar erbesteratutako euskaldunei eta Euskal Etxeoi esker dela. Eta, eskerronez, Herri honek eta Erakunde Publikoak badugula beraiekiko erantzukizuna. Baina ez hainbeste zertarako behar ditugun galderaren arabera egindako gogoetei erantzunez, zertarako behar gaituzten entzun eta aztertuz baizik.

Egitasmorik onenak interesdun bat baino gehiago dutenak omen badira, Euskal Etxeen alorrean ere adierazpen berbera egin daiteke. Gaur egun

bada, zoritxarrez, ikuspegi honen aurkako jokabiderik: harremanak hain erraz sortu eta bultzatu daitezkeen mundu globalizatu honetan, benetan kaltegarri bilakatzen da bertan ditugun arazoak bertaratzea. Euskal Herritik bultzatzen diren harremanek eta laguntzek nahitaez helburu hau izan beharko lukete: Euskal Etxeak elkarte bezala indartzea. Hala egiten ez den guztia litzateke kaltegarri. Zer esanik ez ikuspegi honetan oinarrituta luzatzen direna Eusko Jaurlaritzaren jokabideak eta laguntzak.

Horretarako, 1994ko maiatzaren 27ko 8. Legeak agintzen duenaren arabera, lau urterik behin Euskal Etxeen bilkura bat antolatzen da, eta bertan erakundeok landutako egitasmoari erantzunez antolatzen dira laguntza deialdiak, oso argi izanik zenbat eta elkarte sendoagoak izan, Herri honek ere ahalbide handiagoak izango dituela nazioarteko bere ibilbideetan.

Eta, hasieran aipatutako historia-ezagutza urria halatsu izan ez dadin etorkizunean, aipagarri deri-

tzot urteotan garatzen ari garen *Urazandi* egitarauaz zerbait esatea. Azken 8 urteotan 32 ikerlan liburu argitaratu ditugu eta azken 100 urteotan Ameriketako argitaratutako euskal aldizkari denen digitalizazioa egin da; une honetan, Europan, Euskal Herritik kanpo argitaratutakoena planifikatzen ari gara. Honez gainera, Euskal Etxeak kokatuta dauden lurraldeetako egunkariak azken 100 urteotan euskaldunetz idatzi dutena digitalizatzen ere ari gara. Lan guzti horren ondorioz, ikerleek eta historialariek 500.000 dokumentu inguru eskuratu ahal izango dituzte 2011. urterako. Euskal Herriaren eta euskaldunen erbesteratze-historia aztertu eta zabaltzeko gaur arte izan den agiri-bildumarik ugariena izango da.

Saia gaitezen Euskal Etxeak gero eta elkarte ahalmentuagoak izan daitezen.

** Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizatalde Harremanetarako Zuzendaria*

LUIS JAUREGIALTZO/ARGAZKI PRESS



2007ko Kongresuaren irekiera ekitaldia. Euskal etxeetako eta erakundeetako 150 ordezkari hartu zuten parte bertan.

e.etxe bat Antxonentzat



Miel A. Elustondo*

“Hori da, beharbada, Euskal Herrian jaiok erbestera joan eta dugun makurra: etxeko betaurrekoak baliatzen ditugu nonahi eta beti. Eguzki-betaurrekoak janzen ditugu, nekerik gabe. Aldiz, ez dugu asmatzen erbesteko euskal herria ikusten lagunduko ligukeen antiojorik eramaten”

Itsasoz bestaldera nindoan, hegaldi pisuaren zama arindu nahi eta liburua aletzen. Irakurtzen. Dagokigun gaiaz zeharo apartekoa, nire kautan. *Gatibu sortu nintzen*, Jokin Urain egile. Antxon Garcia del Molinoren bizitza kronika nahi baino gehiagotan latza, Dueñasko (Palentzia, Espainia) La Moraleja kartzelan biak elkarrekin zeuden garaian idatzia. Orrialdez orrialde irakurtzen ari eta hurrengo atala: “Fusilamenduak”. Eta gure gaira ekarri nau bertako lehenengo paragrafoak: “Centro Vascora ez nintzen ia azaldu ere egiten, noizean behin besterik ez: Santo Tomas egunez, Urte Zaharrean eta horrelakoetan, baina askoz gehiagotan ez. Han ez zegoen giro abertzalerik. Beste ingurune batean ibili ohi ginen gure taldetxokoak; Bilboko Arnaizen inprimategian elkartzen ginen lanaren ondoren, zahar eta gazte. Tabernetara joan, garga-gardoren bat hartu, berriketan egin...”. Caracasen ari da Molino, 1975eko fusilatzeak oroimenean. Ez zela tartean baizik euskal etxera (‘e.etxe’ hemendik atzera) azaltzen, han giro abertzalerik ez eta.

Hori da, beharbada, Euskal Herrian jaiok erbestera joan eta dugun makurra: etxeko betaurrekoak baliatzen ditugu nonahi eta beti. Eguzki-betaurreko-

ak janzen ditugu, nekerik gabe. Aldiz, ez dugu asmatzen erbesteko euskal herria ikusten lagunduko liguketen antiojorik eramaten.

Turbulentziak ditugu. Hegazkinaren dardara. Ez dago begiak liburuan iltzatuko dituenik. Hertsu ditut momentuko. Azkena hitz egin dudana australiarra etorri zait gogora. Miren Goikoetxea. Bermeoko euskaran mintzo den sidneytarra. Haren e.etxea eta, Molinarenaz bestelakoa. Ehun bat bazkide direla Sidneyko Gure Txokon. Euskaldun askorik ez dagoela han. Txikitan, bertan igaro ohi zituela Mirenek eguberri jaiak eta domekak. Pilotalekua ere baduela eta sasoi batean txapelketak ere egiten zituztela. Ordea, joanak direla zaharrak eta pilotaririk ez dela harrezkero... Miren Goikoetxea euskaraz hazia da etxean, ingelesez kanpoan, noiz australiartzat noiz euskalduntzat dauka bere burua, “egunaren arabera”, eta ez bide dio e.etxeari eskatzen eskaini diona besterik: euskaldun jatorrikoen biltoki izatea.

Oroit naiz Renotik Boisera egin nuen azkeneko bidaiara. Idahoko hiriburuan eman nuen asteburua. E.etxean nintzen igande arratsaldean, Oregonen famatu egindako Mateo Osa boxeolariaren arreba Margaritarekin berriketan. Laster, guk nahi baino

lehenago betiere, burrunba. Gazte koadrila, soinu handi eta pandero, dantzan trebatzen. Igande bazkalondoa, Boise, gazte andana, soinu eta pandero, Euskal Herrian bertako dantza taldea iduri. Eta ama lurrean jaiok garenon ohiko pentsamendua: “Dantzan ikasten bai, ari dira; euskaldunen seme-alaba edo loba dira, bai, nola deituraren jatorra inori ukatu; Basque Center-eko kide dira, eta etorkizun oparo... baina zer dakite, bada, Euskal Herriaz? Ez dira inoiz han izanak, euskaraz ez dakite hizkuntza zaharra dela besterik, ez dira abertzale, ez euskaltzale, ez euskal herritar... euskal-amerikar dira Boiseko e.etxe izen onekoan, *National Geographic*-en agertzeko moduko estampa alaian”. Dantzan ari diren gelaz bestera, “egiazko euskaldunak”, Bizkaitik emigratu zuten semeak –andreak etxean lagata, nonbait–, tragoa egiten edo jokoan, bizkaiera zarratuan ari dira...

Molinotarrek, Goikoetxeak, Boiseko neska-mutil gazteek... denek ere nola-halako biltoki dute e.etxea, muga guztiak gorabehera. Izatez, deserrian diren euskaldunen bilgune nagusia da e.etxea, jan eta edan eta erretolikan jarduteko leku lehena, elkarrekin harremanetan sartzeko foroa, euskaltasuna gauzatzeko plaza, euskal izatea gatzatzen deneko larraina...

San Frantzisko, Boise, Mexiko Hiria, New York, Habana, Bogota, Valladolid, Bartzelona... zer dute euskaldunek e.etxea, larrain hori baino? E.etxerik ez duten herrietan, zer dituzte bateko eta besteko taberna jakinek, zer dugu Molinoren “Bilboko

“Miren Goikoetxea euskaraz hazia da etxean, noiz australiartzat noiz euskalduntzat du bere burua, ‘egunaren arabera’, eta ez dio e.etxeari eskatzen eskaini diona besterik: euskaldun jatorrikoen biltoki izatea”

Arnaizen inprimategia” Caracasen, zer Bar Gernika Boisen, Inclan frontoia Mexiko hirian, Matxitxa’s korer Habana erdian... Atzerrian diren euskaldunen babes eta aterpe, ondoko belaunaldien arrago... Horrela diote e.etxe gehien-gehien estatutuek ere. Horixe nahi.

Erbesteko e.etxeak e.etxe, asmo berean direla begitantzen zait Euskal Herrian bertan ere halako eta halako elkarte, honako kafe antzoki eta besteko elkarte... Pirinio bazterreko gure herrietan ere, askok e.etxea dute amets, ez dute, nonbait, non gatzatu euskaltasuna... Gure artean bizi den hamaikak egiten du bat horretan munduan sakabanaturik bizi diren e.etxe euskaldunekin. “Diasporan bizi gara geure lurrean bertan ere”. Esanda dago lehenago ere...

Molinori ez dio balio Caracaseko e.etxeak. Aldiz, on du Arnaizen inprimategia, Bilbokoarena. Bikaina! Izan ere, e.etxeak dituzten herriak baino hagitzez haboro dira gisako aterperik ez dutenak. Ordea, denetan da “Arnaizen inprimategi” bat, taberna edo jatetxe itxuran, gehienetan. Euskaldun izaten laguntzen duten babesguneak, e.etxe jatorren egitasmorik eta ekitaldi sorta antolatze ahalmenik ez badute ere. Hostope bat, bederen, e.etxea.

Ez naiz momentuan bertan jabetu baina atzean utziak izan behar ditugu turbulentiak. *Gatibu sortu nintzen*. Berriz heldu diot. Presondegiko e.etxean naiz. Zain ditut Antxon, Koldo, Jokin...



LANDER ARBELAIZ

Aldatu, izaten segitzeko

“Buruz ari naiz -lerro hauek Elko Nevadako motel bateko gelan ari bainaiz idazten, elurrez inguratuta, Renorako bidean-, baina belaunaldi emigrantearen erantzuna, euskal nortasuna gordetzeko, hotelak izan ziren”



Joseba Etxarri
Lizeaga*

Euskal etxeak, historikoki, Euskal Herritik kanpora ateratako euskaldunek atzean utzitako mundua euren artean atxiki eta biziarazteko elkarteak izan dira, Euskal Herriaren eta euskal kultura eta ohituren luzapena. Pirinio magalean jaiotakoek sortu zituzten, naturaltasunez, zeukaten zerbait (euren izaera, nortasuna, kultura eta moldeak) gorde eta iraun arazteko, eta herrialde berrian jaiotako belaunaldiei pasatzeko. Denborarekin, emigranteak desagertu eta bertan jaiotako bigarren, hirugarren eta belaunaldi gehiagokoez hartu dute Euskal Etxeatiko gidaritzza, jakitate handiago edo gutxiagorekin, baina borondatea gidari, begiak erroekiko loturei segida ematean jarrita.

Idahoko euskaldunek, Estatu Batuetan, sarritan esandakoa da bertako hiru euskal belaunaldietako bakoitzak garaian garaiko erantzun diferentea eman izan diela azken ehun urteotan beti bera izan duten gaiari. Belaunaldi bakoitza egoera eta testuinguru desberdin batetik abiatu da eta horrek erantzun diferente bat eman arazi dio galdera berari: zer egin euskal kulturak eta nortasunak bertako gizartean iraun dezan? Garai bakoitzak gizarte instituzio diferente bat sortzea eskatu die.

Buruz ari naiz -lerro hauek Elko Nevadako motel bateko gelan ari bainaiz idazten, elurrez inguratuta, Renorako bidean-, baina belaunaldi emigrantearen erantzuna, euskal nortasuna gordetzeko, hotelak izan ziren. Belaunaldi emigranteak hotelak -euskal ostatuak- sortu zituen, emigrante ezkongabeen biltoki eta babesleku, lagunekin eus-

karaz solasteko eremu, Euskal Herriko moduko giroa, jatekoa eta moldeekin. Bigarren belaunaldiak, berriz, Euskal Etxea sortu zuen: ostatueta emigrante ezkongabea ezkondu egin baita eta erresuma edo herrialde berrian jaiotako seme-alabak bere kultur erroekin harremanetan hazi nahi baititu. Emigrante ezkonduak eta bertan jaiotako lehenengo belaunaldiak sortutako instituzioa litzaiteke Euskal Etxea. Gurasoak musean edo briskan ari diren bitartean, haurrek euskal dantzak ikasten dituzte. Ostatueta bezala, gustatzen zaie Euskal Etxean festak Euskal Herriko erara egitea eta euskal janaria jatea eta giro horretan haziko dituzte seme-alabak. Hoteletan begiak Euskal Herrira itzultzean jarrita zeuzkana bertakotu egin da eta planak bertarako antolatzeari ekin dio, William Douglas-ek hainbatetan aipatutako euskal marratxodunei bidea emanez: euskal-argentinarrei, euskal-estatu-batuarrei, euskal-australiarrei...

Hirugarren belaunaldia, oster, sortzez da erabat bertakoa eta eskas gelditzen zaio gurasoengandik jasotako instituzioa: Euskal Etxea ez zaio aski, dagoen horretan. Izan ere, Euskal Herritik heldutako belaunaldia berez zen euskalduna. Bere gurasoen belaunaldiak ere, emigranteen seme edo alaba izanik, gertu-gertutik bizi izan du euskalduntasuna eta agian euskara ere mintzatzen du edo mintzatzen zuen txikitari. Aurreko belaunaldiak ez bezala, Unibertsitatera joateko aukera izan du eta ekonomikoki ere ongi dabil, hein batean aurreko belaunaldietakoen sakrifizioen ondotik. Konturatzen da euskalduntasuna ingu-

ruan duen zerbait dela, baina berau galtzeko arriskua ikusten du eta ohartzen da batzuek, bere belaunaldi berean, nahiago dutela bizia soilik herrialde berriko herritar gisa egin. Familia berean, anaia edo arreba batzuk aktibo dira euskal komunitatean eta beste batzuek ezertarako ez dute presente.

Euskalduna izatea, beraz, hautazkoa bihurtu da. Euskal hariari tiratzen dioten hirugarren belaunaldi-koek edukiz bete nahi dute beren erroei buruzko jakinmina eta ikasi eta sakondu egin nahi dute euskaldunei buruz. Konturatzen dira zaintzen ez badute euren alderdi hori galtzeko zorian egon daitezkeela, eta bide berriak jorratu nahi eta behar dituzte beren hurrengo belaunaldiei, euren aurrekoek utzi zieten utzi ahal izateko, katea eten ez dadin. Batzuk euskara ikasten hasten dira, ahala badute Euskal Herrira bidaiatzen dira, eta ekimen berriak sortzen dituzte segida horri begira. Euskal Herrian ikasteko programak sortzen dira. Boisen belaunaldi honek Ikastola sortzen du, haurrentzako musika eta dantza klaseak, lotura berriak hasten ditu Euskal Herriko euskaldunekin eta euskal administrazioekin. Boise eta Gernika senidetu egiten dira, Jaialdi euskal festa erraldoia antolatzen dute, eta ugaldu egiten dira itsasoz bi aldeetako euskaldunen arteko harremanak. Teknologia berriak erruz erabiltzen ditu, inportantea baitzaio Euskal Herriarekin daukan harreman zuzen hori.

XXI. mendeko Euskal Etxe batek beharko luke oro har eragile izan eta dagoen tokiko gizartean errotuta egon, bertara eskainiz bere lehenengo euskal ekarpena. Ibarretxe lehendakariak hamaika aldiz esan du diasporara egiten dituen bidaiak ugarietan: “Euskaldun ona izateko Argentinan, lehenik argentinarrak onak behar da izan”. Partaidetza, espiritu kritikoa eta ardurak hartzea bultzatu beharko luke, batez ere gazte jendea aukerak eta bideak eskainiz, bazkide eta lagun hobekuntza pertsonala erraztuz, euskal kultura lan-tzeak edo euskal ekimenetan aritzeak azken finean pertsonaren aberastea eta hazkuntza laguntzen ditue-nean hartzen baitu bere benetako dimentsioa.

Euskal administrazioen, eta gehienbat Eusko Jaurlaritzaren aldetik, bideak errazteko politika sendoa eskatzen du. Hau da, diasporara errespetuz inguratzeko euren esanetara jarritz, eta euren eskuetan tresnak ipintzea, euskaldun izan nahi duenak eta amankomunean daukagun kultura eta identitatearen alde lan egin nahi duenak hala egiteko laguntza eta sos-



LANDER ARBELAITZ

tengua izan ditzan. Zerbitzu espiritua eskatzen die euskal agintariei, Euskal Etxeak, finean, bolondresez osatutako elkarteak baitira, eta boluntarioak, edozein elkartetan, musutruk eta entusiasmaz lan egiten segitzeko, motibazioa behar baitu, bere lana ezagutarazi eta aintzat hartzea, eta lanean ari den orori, egiten duen lana zein inportantea den gu guztiontzako jakinarazi eta sentitzea. Eta hori ere, biltzea, laguntzea, sustatzea eta animatzea zeregin garrantzitsuak dira diasporan. Ilusioa sortu eta atxiki araztea.

Lerro hauek idazteko LARRUNETIK egindako galderak ‘Zein etorkizun irizten diezu Euskal Etxeei?’ zioen. Eta erantzunak ‘segun’ behar du izan: Batzuei ona eta beste batzuei txarra. Euskal Etxeen baitan eta euskal administrazioen baitan dago. Euskal Etxeetan, Idaho-ko kasuan bezala, gakoa nor bere buruari galderak egiten hastean datza: zertarako nahi dut Euskal Etxea? Betetzen ditu gaur egun daukadan Euskal Etxeak bere bazkideen espektatibak? Komunitatea biltzeko balio du ala euskal komunitate gehiago dago Euskal Etxetik kanpo barruan baino? Zer eskaintzen die gazteei gure artera etorri eta gustura egon daitezten? Boisen, eta Boisen bezala beste toki askotan, ari dira galdera horiek mahaigaineratu eta erantzuteak eskatzen duen ahalegin serioa egiten. Batzuetan, zenbat eta Euskal Etxe handiago eta zaharragoa, bizio gehiago eta pisu gehiago gauzak mugitzeko. Eta ez mugitzeak kasu askotan heriotza ekar dezake. Aldaketa etengabe ari den munduak aldaketak eskatzen dizkio Euskal Etxeari helburu beretsuak betetzen segitzeko, eta toki batzuetan nahi edota ahalik ez daukate bide horri ekiteko. Beste askotan bai.

** Euskal diasporan aditua eta Euskalkultura.com-eko zuzendaria*

Euskal etxeak Argentinan: Aldaketaren erronka



GARI GARRAIDE/ARGAZKI PRESS

Mariana Fernandez*

"Zenbait gai ez dira eztabaidatzen 'euskal etxeetan politika sartuko den' beldur. Dantza, musika, euskara, gastronomia, euskal funtzionarioen bisitak eta historia begi onez hartzen dituzte, eta beraz argi dago egungo egoerari diotela beldurra, ez iraganari"

Lan korapilatsua da Argentinako euskal etheen egungo egoera eta etorkizuna aztertzea, arrazoi batengatik batez ere: laurogeita hamar euskal etxe daude. Duela hogeita urte baino gutxiago sortu ziren gehienak, baina sortu zirenean, euskal zentro zaharrenen kudeaketa ereduari jarraitu zioten. Denborak aurrera egin ahala, beren errealitatera eta idiosinkrasiara egokitu zen kudeaketa eredu hori.

Erakunde berri hauen berezitasunetako bat da emakume asko daudela goi karguetan, eta askotan horiek dira erakunde hauen benetako sustatzaileak. Aitzitik, gazteak behar dira, jardueretan askok parte hartzen badute ere, oso gutxi izaten baitira erabakiak hartzeko karguetan.

Bereziki azpimarragarria da Argentinan jaiotako euskaldunek beren buruaz duten iritzia. Izan ere, Euskal Herrian jaiotako pertsonen ondorengo direnez, "euskalduntzat" dute euren burua. Horregatik, EHNA eta beste hainbat ekimen, balio sentimentalez gain, Euskal Herriarekiko benetako konpromiso gisa hartu dituzte han; Euskal Herriarekiko duten sentimenduari lotutako jarrera zehatza da. Ildo

horretan, belaunaldiz belaunaldi, gero eta gehiagok hartzen dute Euskal Herria jatorrizko herrialde gisa, eta gero eta gutxiagok Frantzia eta Espainia. Guretzat oso arrunta da hori, eta Euskal Herritik merezi duen arreta eman beharko genioke, erabakigarria gerta baitaiteke gurean.

Baina egun, euskal etxez gain badira "euskal kontuei" buruz jakiteko bestelako bideak ere. Teknologia berriek antzina ezinezkoa zen informazioa jartzen digute eskura. Baliabide hori indartzeko eta gogoeta eremu bat sortzeko, azken urteetan oinarritzko hainbat programa sortu dira, Euskal Herriaren egungo egoeraren berri ematen dutenak. Hori ezinbestekoa da gure herrian, espainiar multimedia bitartekoek gure komunikabideak isilarazten edo manipulatzeko dituzte eta. Horiek horrela, euskal etxeek bestelako papera izan beharko lukete. Izan ere, euskal zentroen egiturari esker, Euskal Herriaren errealitatea azalera daiteke.

Zenbait gai ordea ez dira eztabaidatzen, "euskal etxeetan politika sartuko den" beldur. Dantza, musika, euskara, gastronomia, euskal funtzionarioen bisitak –erakundeen ordezkari gisa, ez politikari

gisa– eta historia –ez dutelako “politikotzat” hartzen, lantzen diren gaiak politikoak izan arren– begi onez hartzen dituzte; eta beraz, argi geratzen da egungo egoerari diotela beldurra, ez iraganari.

Azken urteetan askok kritikatu dute egungo egoeraren inguruko kezkengatik ez direla euskal etxe berriak zabaltzen. Hori dela eta, zer alda daitekeen aztertzen hasi dira zenbait erakunde, laster gauzatu-ko direlakoan.

Ildo horretan, Buenos Airesko Eusketxe azpimarratu nahi dut, egungo gaiak aztertzen baitituzte bertan, askotariko hizlarien eskutik. Jendeak egiazko interesa du, eta euskaldunak, euskaldun-argentinarrak nahiz euskal jatorrikoak ez direnak erakarri dituzte. Ondorioz, komunitatean barneratzea lortu dute.

Herri mailan oso jende gutxik landu ditzake gai historikoak eta gaurkotasunekoak, ondoren azterketa eta gogoeta egiteko moduan. Baina azken urtean euskaldun-argentinarrak ikasle talde bat sortu da La Platako Unibertsitate Nazionalean, Pedro Mauregi Larrandak koordinatuta eta César Arrondo irakasleak lagunduta, halako gaitan sakontzeko. Ikasleek eurek diotenez, “euskal kontuak unibertsitateetan barneratzea da helburua, euskal gatazkari buruz bestelako oinarrietatik abiatuta eztabaidatzeko”. Ekimen hori arrakastatsua izango da, eta kideak hainbat herrialdeetakoak direnez, garrantzitsua ere izango da.

LA PLATAKO EUZKO ETXEA



La Platako Euskal Astea. Hiri horretako unibertsitatean euskal gaiak aztertzen ari da ikasle talde bat.

“Buenos Airesko Eusketxe azpimarratu nahi dut, egungo gaiak aztertzen baitituzte askotariko hizlarien eskutik. Jendeak egiazko interesa du, eta euskaldunak, euskaldun-argentinarrak nahiz euskal jatorrikoak ez direnak erakarri dituzte. Komunitatean barneratzea lortu dute”

Horrez gain, barnealdeko euskal etxeek eta komunitateak gero eta harreman estuagoa dute. José C. Pazen, Toki Eder Euskal Etxea da horren erakusgarri. Bi mundu uztartzen dira bertan: batetik Euskal Herria eta bestetik tokiko komunitatea, eta horri esker, Euskal Herria beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera ematen du. José C. Paz eta Oñati anaitzeko, Toki Ederri eman zaio bertatik bidaltzen diren laguntzak entregatzeko eta zailtasunak dituzten pertsonen lan prestakuntza hobetzeko jardueren ardura. Oñatik egiten duen lana eta bere jarrera goragarria alde batera utzita, proiektu hori oso garrantzitsua izan da hala euskal etxearentzat nola bertako komunitatearentzat. Euskal etxeak funtzio solidario garrantzitsua du gizartean, eta euskal herriaren berezko baloreen bitartez barneratu da komunitatean, hitzetatik ekintzetara pasatuz. Horrez gain, laguntzak jasotzen dituztenak eta komunitatea oro har, euskal herria ezagutzen hasi dira. Zeregin horrek norabide eta bizimodu berria eman dizkio euskal etxeari, eta argi utzi du taldearen gizarte funtzioa aberastu egiten dela, komunitatera zabaltzean.

131 urte igaro dira lehen euskal etxeak sortu zirenetik; kezka eta behar berriak ditugu erantzuteko, eta gure esku dago horiek gauzatzea.

**Argentinako Udalbiltzako arduraduna eta Eusketxeko kidea*

Euskal nortasunak eta euskal etxeak: Nola izan behar duten, berritzearen pean



ZALDI ERO

Gloria
Totoricaguena*

“Euskaldun izatea eta diasporan etnia bateko kide izatea borondatezkoa eta hautazkoa da. Hurrengo belaunaldiek ez dituzte guraso eta aitona-amonen itxaropen berak. Askotan etniako kide izaten jarraitzen dute arbasoenganako harrotasun eta erantzukizunagatik”

Euskal etxeak eta euskal diasporak oro har, une erabakigarrian daude, hainbat bide baitituzte aukeratzeko. Izan ere, belaunaldi aldaketa gertatu da –adinean eta etorkinen belaunaldietan; herrialde berrian jaiotako lehen belaunaldia, herrialdean jaiotako bigarren belaunaldia, eta abar–, globalizazioaren eta teknologia berrien ondorioak agerikoak dira, eta banakoaren eta taldearen nortasunari buruzko ikuspegi berria zabaldu da. Gaur egun, 163 bat euskal elkarte daude Eusko Jaurlaritzan erregistratuta, eta beste hainbat Nafarroako Foru Gobernuan. Gizartea, hezkuntza eta gobernua antolatzeko berezko sistemak dituzte. Euskal etxeak enbaxada informal gisa erabiltzen dira eta euskal historian, turismoan, ekitaldietan, genealogian, artean eta kulturaren interesa duten kazetari, politikari, irakasle eta herritarren milaka galderari erantzuten diete.

Erakunde baten dinamismoa prozesu bat da, pertsonen nortasunaren antzekoa: nortasuna, oro har, dinamikoa baita, ez estatikoa. Bizitzan faseak igaro ahala etengabe eraikitzen dugu gure nortasuna, eta horri esker harremanetan jartzen gara bestelako pertsona, kultura eta gizarteekin. Erakundeak ere dina-

mikoak dira, eta berezko erritmoa dute, beren bazkideen eta liderren ezaugarrien arabera.

Euskal asoziazionismoa 1600. urtetik ageri da diasporan, Perun. Mendetan zehar, leku ezezagunetara joaten ziren lehen euskaldunek era guztietako informazioa eta laguntza jaso zuten jende ezagunarengandik, eta ondotik, etengabea izan da familia-kide, lagun eta auzokideen joan-etorria. Hasieran beraz, euskal emigranteen belaunaldiak oinarritzeko ekonomia, lan eta etxebizitza beharrak asetzen saiatu ziren. Geroago, talde bateko kide izateko gizarte beharrari erantzun zioten, “gure” komunitate bateko kide izateko eta gertuko familia giroan bizitzeko beharrari, alegia; euskara, janaria, musika, kirola, dantzak, balioak eta abar, herrikideekin bizitzeko.

Euskaldun izatea eta diasporan etnia bateko kide izatea borondatezkoa eta hautazkoa da. Hurrengo belaunaldiek ez dituzte guraso eta aitona-amonen itxaropen berak. Askotan, pertsona horiek etniako kide izaten jarraitzen dute arbasoenganako harrotasun eta erantzukizunagatik, eta arriskuan dagoen euskal etniari bizirik eutsi nahi diotelako. Nortasuna ez da estatikoa, etengabe aldatzen eta eraikitzen da,

esperientziek eragiten diguten heinean. Zazpi lurraldeetatik kanpo bizi diren euskaldunek nolako euskaldunak diren aukeratzen dute, eta euskalduntzat hartzen dute euren burua, eta horri eusteko ekintza estrategia bat behar dute.

Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetatik kanpo bizi diren milaka pertsonak jotzen dute euren burua euskalduntzat. Askok gainera, euskal gizartearekin lotzen dituzten sentimendu, espiritu, hizkuntza, kultura eta erlijio sustrai sakonak dituzte. Seigarren belaunaldikoak dira batzuk; beste batzuek, aldiz, duela zenbait urte egin zuten alde Europara. Euskal kulturaren nortasunari eusteko eta Euskal Herria bultzatzeko, nazioz haraindiko mugimendu indartsua dago Euskal Herriatik kanpo.

“Euskal nortasunaz” ari garenean, diasporan batez ere, euskal nortasunei buruz ari gara, oro har. Diasporan ez dago nortasun homogeenorik. Hala behar du gainera, jatorrizko lurraldea aberatsa baita berez, Eusko Ikaskuntzak euskal kulturari eta nortasunari buruz egin eta argitaratu duen azken ikerketan ikus daitekeenez. Zazpi lurraldeetako herritarrei egindako elkarrizketa eta galdeketetan ikus daiteke, “euskalduntasuna” definitzerakoan ez dagoela galdetutakoen %50ek onartzen duten faktorerik. Askotariko herria gara. Eta hain zuzen ere, gure ezagutza eta esperientzia zuhurtasunez baliatzen baditugu, askotarikoa izatea abantaila handia da. Euskal nortasuna ez da homogenea diasporan, oso heterogeneoa eta deszentralizatua da. Positiboa da hori, ezin baita komunitate, errealitate eta historia horietan guztietan nortasun homogeenorik ezarri. Komunitate horien euskalduntasuna beren nortasun sentimenduaren eta bizileku duten herrialdearen arteko uztarketa, batasuna da. Euskal nortasunak belaunaldiz belaunaldi, genero eta geografia aldaketan hariara, eta denborak eta espazioak aldatu ahala aldatzen dira, esperientziekin.

Kanpoko euskal ikerketak eta agiriak babestu eta sustatzea da diasporako zenbait komunitatek, euskal etxeek eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak atzerrian egin duten lan garrantzitsuenetakoa. Garai batek bestera, euskaldunak eta euskaldunen lagunak etenik gabe aritu dira lanean, emigrazioari, akulturalizazioari eta bizi diren herrialdeetako etnien nortasunari eusteko gogotsu. Euskal Gizataldeekiko Harremanen Zuzendaritzan ere biltze lan garrantzitsua

LUIS JAUREGIALITZO/ARGAZKI PRESS



gauzatzen ari dira, eta aurrerantzean ere eutsiko diotela espero dut.

Gure euskal etxeak boluntarioen erakundeak dira, irabazi asmorik gabekoak, eta funtzionamendu dinamika berezia dute. Erakunde guztietan egiten dute elkarte gisa duten egoerari buruzko gogoeta eta auto-kritika. Kideen beharrei eta interesei erantzuten ote dieten aztertu behar dute arduradunek. Erakunde eraginkorrak ezin dira monolitikoak edo erabat homogeenok izan. Ildo horretan, euskal etxeek beren kideen ezberdintasunak onartzen dituzte, baita kideek jardura eta proiektu ezberdinak behar dituztela ere. Berrikuntza bultzatzeko, buru eta parte-hartzaile asko prestatu behar dira, adin, sexu eta inguru guztietakoak. Ezin diogu berrikuntzari beldurrik eduki, eta ezin dugu zalantzarik izan gure erakundeetatik behar ez diren sailak kentzeko. Belaunaldi bakoitzak garaian garaiko gaiei egokitutako konponbideak behar ditu. Gaur egun, munduko egoera berriaren puzzlea osatu behar dugu, eta nazioz haraindiko errealitate aldakorrek eskaintzen dizkigun aukerak aprobeztatzen asmatu behar dugu. Horretarako, hainbat nortasun onartu behar ditugu; diasporako nortasunak.

Euskal etxeen buruei esker “ohitura onak” erabiltzen dira etniaren nortasuna azaleratzerakoan, hala zaintzerakoan, nola sortu eta birsortzerakoan. Euskal etxeek garapenaren motor izan behar dute, beren kideei nahi duten eran “euskalduntasuna” bilatzen laguntzeko. Euskal zentroak berak euskal emigranteak lotzen ditu, baina baita euskal emigranteak eta haien oinordekoak bizi diren herrialdearekin eta Euskal Herriarekin ere.

Euskal etxeek ahal duten guztia egiten dute euskal nortasunari buruzko ideia berriak gauzatzean belau-

“Berrikuntza bultzatzeko buru eta parte-hartzaile ezberdin asko prestatu behar dira, adin, sexu eta inguru guztietakoak. Ezin diogu berrikuntzari beldurrik eduki. Eta ezin dugu zalantzarik izan gure erakundeetatik behar ez diren sailak kentzeko”

naldiz belaunaldi “euskalduntasuna” transmititzen dela bermatzeko, nonahi bizi direla. Zenbaitetan erakundearen eta bere proiektuen kudeaketa sistema “profesionalizatzeko” beharra dago nolabait, bazkideentzat *brainstorming*-ak prestatu eta autokritika eskatzekoa, oro har komunitateari jakinarazteko eta helarazteko moduak hobetzeko beharra... Euskal etxeek mekanismoak lortu behar dituzte, barnean, bizi diren herrialdean, Euskal Herriarekin eta euskal diasporako beste euskal etxeekin gauzatzen dituzten jardueri eta komunikazioari eusteko modu sistemati-koak eraiki ditzaten. Ingurua aldatu egin da eta erakunde arrakastatsuek ez dute zerikusirik antzinako egitura zaharrekin, eta antolatzeke modu eraginkor eta berrituagoak sortu dira. Komunitate iraunkorrak sortzeko erakunde kultura sortu behar dute, “euskaldun izateko” modua ez dezan ezinbestean erakundeak kontrolatu.

Euskal etxe bizienetan tradizioa eta modernitate uztartzen dituzten hainbat ekintza antolatzen dituzte; argazki erakusketak, soinu eskolak, ikastolak, dantza taldeak, azken filmen emanaldiak, rock musika taldeen birak, politikarien eta kirolarien hitzaldiak... Agintea eta erantzukizuna ematen diete erakundeko gazteei eta berrikuntzak bilatzera bultzatzen dituzte.

Erakundearen memoria eta buruak prestatzea ezinbesteko osagaiak dira erakundearen ezagutzari eusteko. Euskal etxeek gure praktika komu-

nak eta gure talde ezagutza zaintzen dituzten historialariak eta irakasleak behar dituzte. Argentinan, adibide argia da Mikel Ezkerro, herrialde osoan barrena bidaiatzen du, gazte eta helduei euskaldunei buruzko hainbat gairi buruzko hitzaldiak ematen. Oso garrantzitsua da boluntario, lider eta profesional baliotsuak lortzea eta zaintzea, baita auto-finantziazio sistema bat sortzea ere.

Baina liderrek bestelako galdera hauek ere landu behar dituzte: nola ari gara zehazten eta neurtzen diasporako gure erakundearen “arrakasta”? Kopuruaren arabera? Euskal etxeetan gero eta kide gehiagok parte hartzen dutelako, eta gero eta gehiagok bertako abantailak aprobeztatzen dituztelako? Erakundeek gero eta jarduera mota eta kopuru gehiago antolatzen dituztelako? Beste alde batetik, kalitate adierazleak erabiltzen ditugu? Hau da, kontuan hartzen dugu esaterako, euskalduntasuna gero eta kide gehiagok ulertzen duten, eta euskal nortasunarekiko inplikazio sentimental, psikologiko eta espirituala, gero eta handiago den?

Diasporak hainbat ekintza eta lan egin dezakeela uste dut, euskaldunei buruzko informazio zehatza eta egiazkoa emateko: demokrazia, bakea eta giza eskubideak babesten ditugula, esaterako. Euskaldunok bakearen ikur izan behar dugu. Inoiz ez dugu beste herrialde baten aurkako gerrarik hasi, gure lurraldea handitzeko. Euskaldunok ez diogu inoiz gure hizkuntza eta kultura beste herrialde batzuetako herritarrei jazarri. Atzerriko euskaldunak Euskal Herriko egungo gizarte egoerari buruzko benetako irudia bultzatzen saiatzen dira etengabe.

** Diasporen azterketa konparatiboari buruzko gaietan espezialista*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIarekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.125. zenbakiarekin banatua, 2008ko otsailaren 24an)